

18 TUMBLR

- o—108 **18.1 ZER DA TUMBLR?**
- o—108 **18.2 ESKAERAK ETA KONFIGURAZIOA**
 - 18.2.1 Konfigurazioa
- o—108 **18.3 EDUKIAK**
 - 18.3.1 Aldizkakotasuna
 - 18.3.2 Estilo jarraibideak
 - 18.3.3 Zabalkundea
 - 18.3.4 Hizkuntza erabilerak
 - 18.3.5 Hizkuntzaren erabilera ez sexistak
 - 18.3.6 Edukiak



t

TUMBLR



18.1 Zer da Tumblr?

Tumblr microblogging plataforma bat da; erabiltzaileei aukera ematen die estekak, testuak, bideoak, argazkiak, aipamenak, elkarrizketak eta audioak modu egituratuan argitaratzeko. Horien guztien arteko lotura komun bakarra, batzuetan, egilea izaten da.

Edukien jarioa bat-batekoa da, eta gaiak askotarikoak dira. Egunero webean aurkitzen denaren gordailu modukoa da.

Erabiltzaileek erregistratuta dauden beste pertsona batzuk jarraitu (follow egin) eta haiek argitaratzen dituzten sarrerak ikus ditzakete eurenekin batera. Zerbitzuak erabiltzeko eta pertsonalizatzeko erraztasuna nabarmentzen du; tresnak berak eskaintzen dituen txantiloietako bat aukera daiteke, edo berezi bat konfiguratu daiteke. Alde horretatik, Tumblr gizarte sare gero eta garrantzitsuagoa da; blogak sortzeko plataforma nagusia, Wordpress, gainditu du sortutako Tumblr kopuruak.

18.2 Eskaerak eta konfigurazioa

UPV/EHUn Tumblr-ak Komunikazio Bulegoak sortzen ditu, eskaera egin eta onartu ondoren.

18.2.1 Konfigurazioa

Ikastegiak, sailak, unitateak edo dagokionak konfiguratu du Tumblr. UPV/EHUk ez dauka txantilo estandarrik Tumblr korporatiboentzat. Hauek nahi duten txantiloia erabil dezakete, nahi izanez gero, beren markaren gama kromatikoa kontuan hartuta, eta goiburuan edo header deiturikoan logotipoa eta ehu.eus-erako esteka jartzeko betebeharrak.

18.3 Edukiak

18.3.1 Aldizkakotasuna

Gomendio orokorra da egunean sarrera bat edo bi argitaratzea, gure jarraitzaileentzako eduki interesgarria duten pilula modura.

Sarrerak argitaratzeko eta zabaltzeko eguneko zer ordu eta asteko zer egun diren egokienak ere baloratu beharko da. Era horretan, gizarte sareen askotariko tresnen bidez sarrera ahalik eta gehien zabaltzea lortuko dugu.

18.3.2 Estilo jarraibideak

Egitura

Testuak laburrak izan ohi dira (500 karaktere inguru).

Aipamenak, prentsa zatiak (jatorrizko iturrirako esteka barne), pertsonen arteko elkarrizketak, etab. sar daitezke.

Irudiak

Sare mota oso grafikoa eta kontsumo azkarrekoa da Tumblr, eta material grafikoarekin elikatzea komeni da. Gomendio orokorra da UPV/EHUn irudi bankura edo, hala badagokio, lizentziadun argazkien beste gordailu batzuetara joatea, berrerabili ahal izateko.

Hirugarrenen argazki bat behar izanez gero, Creative Commons lizentzia duten irudiak lor ditzakegu (<http://es.creativecommons.org>) Interneteko gordailuetan. Irudi horien lizentziek egiletasun eskubideak babesten dituzte, baina hirugarrenek erabiltzeko aukera batzuk baimentzen dituzte. Lizentzia hori errespetatu beharko da, iturria aipatuz edo egileak jarritako baldintzak betez.

Jarraitzen ditugun pertsonen argazkiak ere parteka ditzakegu (Tumblr-ek, bestelakorik adierazi ezean, iturri horiek aipatzen ditu).

18.3.3 Zabalkundea

UPV/EHUko Komunikazio Bulegoak, Tumblr konfiguratzeko duenean, sailaren, zerbitzuaren edo markaren gainerako gizarte sareekin lotuko du, edukia zabaltzen laguntzeko.

18.3.4 Hizkuntza erabilerak

UPV/EHUn Tumblr-etan gida honen 3. kapituluari jasotako UPV/EHUn Hizkuntza Ofizialen Erabilera Irizpideak errespetatuko dira. Sareek bi hizkuntzen kalitatea zainduko duen administratzaile elebidun bat izango dute.

18.3.5 Hizkuntzaren erabilera ez sexistak

Gida honetako 4. kapituluari biltzen diren arauak jarraituko dira, *UPV/EHUn euskararen eta irudien erabilera ez-sexistarako gidak* jasotako ildoak, hain zuzen.

18.3.6 Edukiak

Tumblr-en argitaratzen den informazioak balio erantsia izan behar du, jarraitzaileen interesa bereganatzeko.